

PUTZU BAT EGITEA TANBINGUE-KO ESKOLAN

TOGO



KOKAPENA

Proiektua Tandjouaré-ko prefekturan garatzen da, Savanes izeneko Eskualdean, Togo iparraldean. Tanbingue-n, hain zuzen, Tandjouaré inguruan aurkitzen den herrixkan, Bogou-tik 10ren bat kilometrora, Tandjouaré-Yembour-era doan errepidean. Inguruneak gehien bat lautadak dira, belar eta zuhaixkaz beteak, zuhaitzak desagertzen joanaren ondorioz. Togoko eskualde lehorrenetakoa da. Tanbingue-ko biztanle gehienak Moba nekazariak dira, errekurtsio eta errenta eskasekoak. Gainera, haurren hil-tasa oso handia da eta elikagaien segurtasuna ez dago bermatuta.



AURREKARIAK

Benin Golkoko La Salleko Anaiek 40 urte baino gehiago daramatzate Dapaong-eko Elizbarrutiak Savanes eskualdeko biztanleriaren oinarrizko hezkuntzaren eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen estalduraren kantitatea eta kalitatea handitzen joateko egiten duen etengabeko eta epe luzeko ekintza batean lanean.



Erabaki zuten beren eskoletan oinarrizko beste zerbitzu batzuk ere sartzea, herrixketan beharrezkoak direnak elikadura-faltari, gaixotasunei eta egunero urez hornitzeko premiari aurre egiteko. Oinarrizko zerbitzu horien artean, eskolen ondoan putzuak eraikitzea dago, herrixka urez hornitzeko. Putzu horiek eraikita, neskei eskolara joatea eragozten zien kilometroak egiteko lana arintzea lortzen da, baita herrixkako ikasleen eta bizilagunen osasuna hobetzea ere.



PROIEKTUA

Tanbingue eskolan putzu bat eraikitzea.

Helburuak:

- Kalitatezko lehen mailako eskolatzeko mailak hobetzea haurrentzat.
- Edateko ura eskuratzeko instalazio komunitarioak hobetzea.
- Ur kutsatuarekin lotutako gaixotasunak murriztea.
- Herrixkan higie- eta osasungarritasun-jardunbide egokiak areagotzea.
- Jendearen bizi-kalitatea eta produktibitatea hobetzea.
- Ur-estaldura hobetzea eta ziurtatzea.

ONURADUNAK

- Eskolako ikasleak (156 ikasle, 66 neska eta 50 mutil)
- Tanbingue herrixkako biztanleak (780 biztanle, 390 emakume eta 390 gizon)



PROIEKTUAREN KOSTUA: 16.007,15€